

E MAILA



2025

SORALUZEKO XL. IDAZLAN LEHIAKETA



SORALUZEKO
UDALA

GIZAKIAK BEGIRA EZ DAUDENEAN KALEA TXORIONA DA

E MAILA
1.saria
UXUE RUIZ
ROMO

I

Gizakiak begira ez daudenean

Gizakiak begira ez daudenean
kondorrak gepardoari azala erantzi eta
pantera da
azaleratu
artean eskorpioia begira dutela

II

Nora ez dugunean

Alga gorria
eta karramarro usaina
kaioa barandan zelatari
autoak joan-etorrian
Ura jostari
arrokak buztina nola
moldatzen, higatzen
Laztanten ala higatzen?
non ote marra gorria?
laztanten duenak ez omen du higatzen

Ez horren aspaldi
neumatikoren batek zanpatu
eta eguzkiak kiskalitako
igel kurruskari bat
nik ezagutzen ez dudan norbaitek akaso
gustora jango lukeena
Bizilagun du beste hilotz bat
erle borobil, iletsu eta izaki ia-biziduna
Igelaren itxurari iseka egin
eta karmak patu berdina
egin zion erleari opari

Txakurrak elkarri ipurdiak usaintzen
elkar ezagutzeko erritu sarri
Jabeek zer egin ez dakitela
bat lasai bertan
bestea ihesean
egunerokoan guztiarekin egin ohi duen moduan
"Elkarri ipurdiak usaintzea tokatzen al da orain?"
pentsatu du bertan gelditu denak

Etxeak parez pare agertuz doaz
koloretsu, eder
Balkoiak eta azotea bat
hainbat altueratan
errenei eraikitako eskailera zalantzatiak bailiran
Maite dut collage honen desordena

Azotea batek nire atentzioa bahitu du
aulki urdin bat
hasitako liburu bat gainean
zakur zahar bat gerizpean
Inertziak aurrera eta aurrera
beti itsasorantz

Eskuinean itsasoa herriratzen
ibilitako bideari jarraiki
obediente, formal
ez otzanegi, ezta harroegi ere
jendea du begira
Ezkerretik zuriz margotutako etheen konpainia marra berdedun balkoi bat sare
batean bildua arrantza-itsasontzi bat bailitzan
Ez da hotsik entzuten
guardiako marinela ere lo hartuko zuen agian
Etorkizun gutxiko arrantza-balkoia

Itsaso usaina datorkit berriro ere
Jaberik gabeko
egurrezko banku bero bat
lagun kuadrilla bat inguruan hizketan

Jertse gorridun arrantzale bat
kai-muturrean bakarti
ortzi muga atzean
zerua eta ura besterik ez
Postalari begira nagoela
munduko lekurik baketsuenaren aurrean sentitzen naiz
Kliska berdinean bake-toki ez direnak datozkit burura
Lehen zerua eta ura besterik ez zegoen lekuan
orain hegazkinak eta bonbak ditut ikusten
kea, hautsa,
sirena-hotsak eta oihuak han-hemen

Aparra arroka da gerturatzen
alga gorriak odoletan bustirik
Zauriak laztana izan nahi du,
zoruko adreilu birrinduek azotea
Zakurra noraezean dabil, are zaharragoa dirudi orain
Txoriak ihesean
nora ez dugunean

III Narras

Nire animoa
narrasti da
Ezin beste era batean ibili

Narrasean narras
narrasean lur-arras
narrasten
are narrastitzen

Nahiko nuke zeru-arras
nahiko nuke kolibri
ezein txori
Gozorik gabeko gazi-min naiz
garratz
lurra ahurretan
lokatza hortzetan
lorratz desitxuratuak, itsusiak
ditut hitz

IV

Kalea ~~txoriena~~ txoriona da

Larunbata 07.00 am

Esnatu eta txorien txioak entzun ditut
edo alderantziz izan al da?

Dakidana da zerbaitek saloiruntz bultza
eta leihoa zabaltzera eraman nauela

Apur bat lainotuta dago
eguzkia bertan dela nabari da
lotsagorrituta

Goizeko freskotasunaren besarkadak goxatu nau
inguruak ongietorria egin dit
etxean sentitu naiz
bidaia luze batetik bueltan banengo bezala
Sentitzen dut berotasun hau ere ez dela niretzat bakarrik
momentu honetan behar dugun guztiontzat dela
Besteen gertutasuna ere besarkatu dut
besarkatu ditut

Goizeko nagiak ez nau ohera berriro eraman
inguruak jan nau, hipnotizatu
abesti instrumental bat entzuten ariko banintz bezala
begiak itxi eta are gehiago murgildu naiz
goizak eskaintzen didan espektakuluan

Txioak desberdindu ditzaket
txori jostalariak adar batetik bestera dabiltzala imajinatzen dut
kotxeren bat igaroan
paseari goiztiar baten eztula
duela ez askora arte gaitzetsia zena
gaur goizean ez da epaitua sentituko
egunsentiak ez du epairik egiten eta
Tabernariren batek edo
gaupaseroren batek akaso
kristal botilak hautsi ditu kontenedorean
Txio gehiago
ez karaktereetan mugatuta dauden horietakoak
beste autoreen bateko motorra hurbildu, pasa eta badoa

Txori bi kalean behera
zein txori ote? ez dakit
lerro hauek kaletar batenak dira
baina gaur goizean kalea leihotik haratago
sentitzen duen batena.

Tenderetetik pintzak hartu
eta luma ederrez jantzi naiz
laranja, gorri eta egur kolorez
Hegalak zabaldu aurretik
leihora igo eta sakon hartu dut arnas
ltoizen abestiak dioen moduan
*"Txantxangorri bat da...
txantxangorria naiz!
Hegal egiten!
Hegal egiten!"*